



## **DOKTOREGO TESIAK EUSKARAZ DEFENDATU AHAL IZATEKO BEHAR DIREN INTERPRETazio LANAK EGITEKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA 2025. URTEA**

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak diru laguntzetarako deialdia egitea erabaki du doktorego tesien euskarazko defentsak sortu ahal dituzten interpretazio gastuetan laguntzeko.

### **1.- DEIALDIAREN HELBURUA**

Diru laguntzetarako deialdia egiten da doktorego tesiak euskaraz defendatzeak sortzen dituen interpretazio gastuetan laguntzeko.

Tesia euskaraz defendatu dela joko da baldin eta euskaraz gutxienez defentsaren % 45 bete badu. Bestalde, graduako aktak defentsan erabilitako hizkuntzak jaso beharko ditu, eta bakoitzaren ehunekoa.

Defentsa eguneko aldi bereko interpretazioan laguntzeko, gehienez ere, eskaera egiten den unean indarrean dagoen kontratu publikoak lan mota horretarako ezarritako diru kopurua ordainduko da. Ez da ordainduko interpretazio lanari begira gela atontzeko egindako gasturik.

Doktoregaiak hala eskatzen badu, eta Euskara Zerbitzuaren ahalbideen arabera, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak laguntza eskainiko dio eskatzaileari tesi defentsan aldi bereko interpretaziorako beharko dituen baliabideak bilatzerakoan.

Deialdi honi buruzko edozein zalantza argitzeko, mezu elektronikoa bidaliko da honako helbide honetara:

[itzulpengintza.zerb@ehu.eus](mailto:itzulpengintza.zerb@ehu.eus)

## **CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA LOS TRABAJOS DE INTERPRETACIÓN NECESARIOS PARA LA DEFENSA EN EUSKERA DE TESIS DOCTORALES AÑO 2025**

El Vicerrectorado de Euskera y Planificación Lingüística considera necesario publicar una convocatoria de subvenciones para ayudar en los gastos que conlleva la labor de interpretación en la defensa de las tesis doctorales en euskera.

### **1.- OBJETO DE LA CONVOCATORIA**

Se convocan subvenciones para la ayuda en gastos de interpretación para la defensa en euskera de tesis doctorales.

Se considera que la defensa de la tesis se ha realizado en euskera cuando al menos un 45% de la misma se realiza en euskera. Además, en el acta de grado han de constar los idiomas que se han utilizado y el porcentaje de cada una de ellas.

La ayuda para la interpretación simultánea el día de la defensa será como máximo la cantidad consignada para este tipo de trabajos en el contrato público en vigor en el momento de la solicitud. No se abonarán gastos relacionados con el acondicionamiento del aula para la interpretación.

En caso de que la doctoranda o doctorando lo solicite, y en la medida de las posibilidades del Servicio de Euskera, desde el Vicerrectorado de Euskera y Planificación Lingüística se le ayudará en la búsqueda de los medios necesarios para llevar a cabo la interpretación simultánea en la defensa de la tesis.

Para cualquier aclaración sobre la presente convocatoria, se enviará un correo electrónico a la siguiente dirección:

[itzulpengintza.zerb@ehu.eus](mailto:itzulpengintza.zerb@ehu.eus)



## 2.- ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute 2025eko urtarrilaren 2tik abenduaren 31ra bitartean UPV/EHU tesia euskaraz defendatzen duten guztiak.

## 3.- ESKARIEN AURKEZPENA

3.1. Eskaria deialdi honekin batera doan inprimakia betez egingo da. Deialdia Euskara eta Hizkuntzarako Plangintzarako Errektoreordetzan eta web orrian dago eskuragarri: <http://www.ehu.eus> (Euskara - Deialdiak - Indarrean dauden deialdiak)

3.2. Eskariak aurkezteko epea: 2025eko abenduaren 1era arte.

3.3. Eskaria eta behar diren dokumentuak tesia defendatu aurretik aurkeztu behar dira. Ez da onartuko defentsa egin ondoren aurkezturiko eskaerarik.

3.4. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitakoaren arabera, eskaera eta dokumentuak ezarritako epearen barruan aurkeztu behar dira UPV/EHUko erregistro elektronikoen bitartez, [esteka](#) honetan; "Azaltzen du" atalean: **Doktorego tesiak euskaraz** jarriz. Horretarako, identifikazio digitala beharko da.

Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurrez aurre aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko berariazko adostasuna adierazi ondoren, bat

## 2.- REQUISITOS DE LAS PERSONAS SOLICITANTES

Podrán tomar parte en esta convocatoria quienes defiendan en euskera la tesis doctoral en la UPV/EHU entre el 2 de enero y el 31 de diciembre de 2025.

## 3.- PRESENTACION DE SOLICITUDES

3.1. La solicitud se formulará en el impreso que acompaña a esta convocatoria. La convocatoria está disponible en el Vicerrectorado de Euskera y Planificación Lingüística y en la página web: <http://www.ehu.eus> (Euskera - Convocatorias- Convocatorias en vigor)

3.2. Plazo para la presentación de solicitudes: hasta el día 1 de diciembre de 2025.

3.3. La solicitud y los documentos necesarios deberán ser presentados antes de la defensa de la tesis. No se admitirán las solicitudes presentadas con posterioridad a la defensa de la tesis.

3.4. De conformidad con lo establecido en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la solicitud y su documentación deberá presentarse dentro del plazo establecido a través del registro electrónico de la UPV/EHU ubicado en este [enlace](#), indicando en el apartado "expone": **Doktorego tesiak euskaraz**. Para ello será precisa identificación digital.

Las solicitudes y documentos presentados de manera presencial en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU serán digitalizados para su incorporación al expediente administrativo electrónico, devolviéndose los originales a la persona interesada, previa identificación ante la persona funcionaria y otorgamiento de consentimiento expreso para



etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek gai hauei buruzko jarraibideak onartzen ditu: erregistro gaietan laguntzeko bulegoetako buruzkoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez UPV/EHUa aurkezteari buruzkoak; eta funtzionario publiko gaituen erregistroari buruzkoak.

3.5. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

- a) NANaren fotokopia.
- b) Interpretazioaren aurrekontua (bakarrik doktoregaiak bere kabuz kontratatzen badu).

3.6. Tesia defendatu ostean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Interpretazioaren faktura, zeinek ordainduta dagoela jaso beharko duen, edo ordaindu dela frogatzen duen agiria (bata zein bestea, bakarrik doktoregaiak kontratatu badu).

3.7. Tesi defentsa egin ostean, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak ofizioz eskatuko du Doktore graduaren aktaren kopia bat. Bertan, tesia euskaraz defendatu dela jasota egon behar du, eta bere portzentajea.

3.8. Eskabidea aurkeztean, doktoregaiak ontzat ematen ditu deialdiaren oinarriak.

#### 4.- TXOSTENA

Deialdia amaitutakoan, Euskara eta Hizkuntza Plangintzako Errektoreordetzak txosten bat egingo du, eta, bertan, laguntza nori eman zaion eta zenbatekoa izan den zehaztuko da.

#### 5.- DIRU LAGUNTZAREN ORDAINKETA

esta actuación, de conformidad con la resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre oficinas de asistencia en materia de registros, la presentación en la UPV/EHU de solicitudes, escritos u otras comunicaciones a través de persona funcionaria pública habilitada y el registro de personas funcionarias públicas habilitadas.

3.5. Documentación a presentar junto con la solicitud:

- a) Fotocopia del D.N.I.
- b) Presupuesto de la interpretación (solo en el caso de que la doctoranda o doctorando lo contrate directamente).

3.6. Documentación a presentar una vez realizada la defensa de la tesis:

- a) Factura de la interpretación en la que se indica que está pagada o el comprobante de haberla pagado (solo en el caso de que el doctorando o doctoranda lo haya contratado directamente).

3.7. Después de la defensa de la tesis, el Vicerrectorado de Euskera y Planificación Lingüística recabará de oficio una copia del acta de grado de Doctor. En la misma deberá constar que la defensa ha sido realizada en euskera y su porcentaje.

3.8. La presentación de la solicitud implicará la aceptación de las bases de la convocatoria.

#### 4.- INFORME

Una vez concluida la convocatoria, el Vicerrectorado de Euskera y Planificación Lingüística hará un informe en el cual se detallarán las personas a quienes se les ha concedido la ayuda, así como sus importes.

#### 5.- PAGO DE LAS SUBVENCIONES



Ordainketa honela egingo da:

Interpretazioa Euskara Zerbitzuak kontratatu badu, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak zuzenean ordainduko dio interpreteari.

Doktoregaiak berak kontratatu badu interpretea, interpretazio lana ordainduta dagoela jasotzen duen faktura aurkeztu beharko du, edo ordaindu duela frogatzen duen agiria. Errektoreordetzak doktoregaiari ordainduko dio deialdi honetan 1.2 puntuan agertzen den diru kopurua, gehienez.

## 6.- BATERAGARRITASUNAK

Diru laguntza hau bateragarria izango da Estatuko zein nazioarteko administrazio publikoek edo horiei atxikita zein horien mende dauden erakunde publikoek emandako beste laguntza batzuekin, baina laguntzen zenbatekoa ezingo da handiagoa izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino, ez banaka hartuta, ez beste laguntza batzuekin batuta.

## 7.- INTERPRETAZIOA

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordeak baimena dauka deialdi honetako arauak argitzeko, bai eta horiek ezartzeko behar diren beste arau batzuk emateko ere.

El pago se efectuará de la siguiente manera:

En caso de que la interpretación haya sido contratada por el Servicio de Euskera, el Vicerrectorado de Euskera y Planificación Lingüística efectuará el pago directamente a la intérprete o al intérprete.

Si ha sido la doctoranda o doctorando quien ha contratado la interpretación, deberá presentar la factura del trabajo realizado donde se indique que está pagada, o justificante de haber abonado la misma. El Vicerrectorado abonará como máximo la cantidad indicada en el punto 1.2 de la presente convocatoria

## 6.- RÉGIMEN DE COMPATIBILIDADES

La percepción de esta subvención será compatible con otras ayudas o subvenciones que pueda conceder cualquier Administración Pública, entidades públicas adscritas o dependientes de la misma, tanto nacionales como internacionales, sin que aisladamente o en concurrencia con otras, puedan superar el coste total de la actividad objeto de subvención.

## 7.- INTERPRETACIÓN

La vicerrectora de Euskera y Planificación Lingüística queda autorizada para aclarar las normas contenidas en esta convocatoria, así como para dictar otras que sean necesarias para su aplicación.



## 8.-ERREKURTSOAK

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta bere aurka, nahi izanez gero, interesatuak berraztertzeko errekurtsua aurkez diezaioke Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordeari hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango du administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegian, bi hilabeteko epean, aipatutako egunetik kontatzen hasita.

Leioan, sinadura digitalaren datan

## 8.-RECURSOS

Contra la presente Convocatoria, que agota la vía administrativa se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la vicerrectora de Euskera y Planificación Lingüística, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación, o recurso contencioso-administrativo ante la jurisdicción de lo Contencioso-Administrativo que corresponda en el plazo de dos meses contados de igual forma.

En Leioa, a la fecha de la firma digital

Sin.: / Fdo.: Miren Igone Zabala Unzalu

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordea /  
La vicerrectora de Euskara y Planificación Lingüística